



GARRAIO PUBLIKOA

Diputazioa hernaniarrekin bilduko da irailetik aurrera, garraio publikoa hobetu asmoz

Gipuzkoako 57 herritara joango da, garraio publiko zerbitzua nola hobetu jakin nahian. Herritarren ideiak bildu, eta behin betiko proiektua ekainean egongo da, 2014 urte bukaeran martxan izateko.

«GARRAIO publikoaren barruan iraultza bat» egingo du Diputazioak, Larraitz Ugarte Mugikortasun eta Bide Azpigiturakotako diputatuak jakinarazi duenez. 2014 urte bukaerarako zerbitzua erabat berritu nahi du Diputazioak, eta hori, herritarrekin batera egingo duela dio.

Datorren irailetik aurrera, Gipuzkoako 57 herritan izango dira Diputazioko kideak. Bilerak egingo dituzte herritarrekin, autobusetan galdetuko da, eta on-line ere proposamenak egin ahal izango dira. Bi fase edo erronda eginda, proiektu definitiboa ekainerako egongo da, eta

2014 bukaeran zerbitzu guztia martxan espero da.

Hernani, eta beste zortzi herri

Hernaniarrekin ere bilduko da Diputazioa, prentsa oharrean dioenez. Ez du zehaztu data, baina herritar guztiei dei egin die, beren proposamenak

egitera azaltzeko, irailetik aurrera izango den parte hartze prozesuan. Lau bailara haunditan banatu dute Gipuzkoa, eta Hernani Buruntzaldeko eta Tolosaldeko herrien artean dago: Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Astigarraga, Tolosa, Villabona eta Irura. ||

MADALENA JAIK LIZEAGAN

Jana eta edana protagonista, gaur Lizeagan

Arratsaldeko festa dute gaur, eta egun guztikoa bihar. Gaur, tortila lehiaketarekin hasi, sagardo kata eta sagardo probaketa gero, eta koadrilen arteko afariarekin bukatuko dute.

MADALENA jaiak tripa ondo beteta hasiko dituzte Lizeagako auzotarrek. Bi eguneko festa dute, eta gaur, arratsaldeko 18:00etan hasiko dira, txupinazoarekin. Tortila lehiaketa izango da gero. 18:35-etarako presentatu behar dira tortila guztiak, edozein eratakoak, eta saria izango du onenak, eta baita eramandako 10 lehenengoen ere.

Sagardo kata berria da aurtentzen. 18:45etan egingo dute kata hori, eta 3 euro ordaindu behar dira. 30 lagunentzat dago lekua. Sagardoa nola apreziatu ikasi ostean, edan ere egin beharko dute, eta probaketa dute, Hernaniko sei sagardotegitako sagardoekin (basoa, 2 euro). Ondoren, koadrilen afaria, eta musika.

Festetan auzoa dotore egon dedin, balkoiak disfrazatzeko eskatu zaie bizilagunei. ||



UZTAILAK 20, LARUNBATA

18:03 Txupinazoa.
18:35 Tortila txapelketan parte hartzeko azken ordua. Edozein tortila eramane liteke, eta 10 lehenengoen saria dute.
18:45 Sagardo kata.
19:12 Sagardo probaketa.
21:30 Koadrilen afaria.
22:30 Musika.

Sagardo probaketa eta pintxo jana izan ziren iaz ere, Madalena jaietan.

◆ ASTIGARRAGA

Herri Krossa, gaur

Astigarragako Santio jaiak gaur hasiko dira, Herri Krossarekin. 17:30etan aterako dira korrikalariak Apeztegia plazatik. Izenematea, 16:30etatik aurrera. ||

◆ PAUSOKA

Hitzaldia gaur, Lluís Arnáiz Duró de Paradisen eskutik

Neurobiogenetikari buruz hitz egingo du gaur Lluís Arnáiz Duró de Paradis medikuak. Behar bereziak dituzte haurren gurasoentzat da hitzaldia, 10:00etan, Etxeberriko 9garren blokean. ||

◆ ZIKUÑAKO AMA

Ibardinera, bihar

Bera eta Urruña tartean dago Ibardin mendatea eta hara joango dira bihar, Zikuñako Amako kideak. Goizeko 08:00etan abiatuko dira Zinkoeneatik, eta 80 km dituzte, joan eta etorri. ||

◆ ERREMONTA

Ikusmin haundia gaur Galarretan

Lau partidu jokatu dira gaur, 16:00etan Galarretan, eta ikusmina piztu dute estelarrak (Juanenea eta San Miguel elkarrekin ariko dira), eta Kuxta Prebiako banakakoak. ||

◆ ESKU PELOTA

Hiru finalerdi goizean, eta lau finalaurden arratsaldean

Buruntzaldeko txapelketako zazpi partidu jokatu dira gaur kiroldegian, azken fasekoak. 11:00etan, hiru finalerdi: kadeteetan, Cisneros-Uruzola / Reala; jubeniletan, Urnieta-Intza; eta nagusietan, Urkizu-Esnaola / Gazteleku. 16:00etan, infantil mailako lau finalaurden: Agirre-Arizmendi; Lazkano-Arizmendi; Berasarte-Zugasti; eta Elizalde-Insausti. ||

**FUNERARIA
ORBEGOZO**
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxekoekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...



GORA EZKONBERRIAK!!
EÑAUT eta VANESSA



TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egumez**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauetz**: **Aldabe** Perkaitezgi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● **GAUR** Eguraldi nahasia gaur. Goizean eta iluntzean zaparradak botatzeko itxura dauka, eta eguerdi-arratsalde partean eguzkiak aginduko du. Min.19° / Max.28°
 ● **BIHAR** Ekaitz arriskua izango da bihar, baina iluntze aldera. Goizean tantaren bat bota dezake, baina segituan eguzkia aterako da, iluntzera bitartean. Min.19° / Max.28° (euskaime)

URUMEA IKASTOLA - GURASO ELKARTEA

Akordioa lortu dute, eta Urumeako gurasoak gustora

Guraso Elkartea: «Patioa umeentzat izango da 08:00etatik 15:00etara, eta horrez gain, Udalak irteera-ranpa egingo digu Sandiusterri kalera».

URUMEA ikastolako gurasoak gustora daude, patioaren arazoa konpondu delako, eta alde guztien artean akordio batera iritsi direlako. Hernaniko Kronikari jakinarazi diotenez, bi eskaera nagusiak lortu dituzte: bate-tik, patioa umeek erabili ahal izatea 08:00etatik 15:00etara; bestetik, irteerako ranpa bat egitea Sandiusterri kalera.

«15:00etatik aurrera, gure patioa parkin bihurtuko da. Beraz, arratsaldeko 16:30-etan umeak gelatik ateratzeko nora atera behar zuten? Parkin batera? Udalak agindu digu ranpa bat egingo digula, Sandiusterri kale aldera ateratzeko».

Guraso Elkartea esker oneko hitzak izan ditu alde guztientzat, eta baita Lizea-

gako Auzo Elkartearentzat eta baita Berriak merkataria eta ostalarien elkartearentzat.

Eraikin berriaren zai

Urumea ikastola zai dago, Eusko Jaurlaritzak eraikin berria noiz egingo, Elkanotik ateratzeko. Berez, eraikin berriak 2014ko ekainean bukatua behar du, baina lanak hasi gabe daude. ||



Ekitaldi antifaxista, udaletxean Espainiako bandera jarri zen egunean.

Faxismoaren kontrako bandera, Rajoyren dimisioa eskatzen zuen pankarta, bandera errepublikarra eta abar jarri zituen herenegun Arkupetan, talde antikapitalista batek, udaletxean Espainiako bandera jarri zen egunean. Horrela zioen pankartak: *Ez frantsismoaren inpunitateari. Rajoy dimita!! La impunidad no se repita!! Argentina. Querrela contra el franquismo se tramita!!* ||

Eskelak

ESKERTZA ETA MEZA

Juana Leonet Perurena

(Jose Maria Artolaren alarguna)
Orain egun gubi hil zen

- Goian Bego -

Juanaren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere. Eta gonbidatzen zaituztete **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **HAMARRETAN**, Ereñotzuko **SAN ANTONIO** parroki elizan egingo den mezara.



ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2013ko uztailearen 20an

IRAGARKI MERKEAK

Inbertsio paregabea. Pisua salgai Amaran. 175 m2 trastelekua aparte. 4 gela, egongela handia, 2 komun. Guztiz eraberritua. 465.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
Aukera. Pisua salgai Amaran (Azpeitia kalea), 55 m2, 2 gela, egongela, sukalde eta komuna. 184.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
Pisuak, baserriak, txaletak, nabeak, garajeak behar dira. Edozein zonaldetan. Alokairuan edo salmantan. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
TXOLLOAI, 120.000€, Victor Hugo kalean. 2 gelatako pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815
Ereñotzun pisua salgai. Dena eraberritua. 3 logela, sala, sukaldeta eta komuna. Kalefakzioa eta aparkamendu komunitarioarekin. Garajea aukeran. 180.000 € (negozialdeak). Deitu: 600 644 885
Sukaldari bila gabiltza Hernaniko taberna batean, asteburuetan lan egiteko. Deitu: 688 647 582
Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iñigo Royo Masajista. Masajeta, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

TXANTXILLA HERNANI

GARAJEAK SALGAI

Itxiak, 21 m²
Erdigunean
22.000 €tik aurrera

Informazioa
ULUS TXANTXILLA
943 42 95 21



Zinor Zuntzeri, eta eskaintza sustapen hau 20 Mb-eko DUOa kontratatuz 2013/07/31 baino lehen, Borne hartzen dituzten linea, alta eta instalazioa. WFR N kalitate-moderna, estatuko finkesterako (4.000 min) eta mugikortasuneko (60 min) delak, eta Premium Zerbitzu Teknikoa doan liru irabazteko, kutsatze helburu 3,5 €. Oñan lanerako helburu 33,85 €-ko prezioa izango dute berriak, eta, mugikortasun tarifa finkesteraren bidez, helburu 39,85 €-ko prezioa izango dute berriak, baina 40,85 € da. Zuntz Oñan 12 irabazteko sustapena, eta 12 irabazteko konpromisoa, zuntzua aldatzeko denetik. BIZIA er dago sarritan. Alerkoak mugatuta: 250. Bostak ostalari bakarrak eskaintzen du, behar den baldin, 2014ko atzerako aste. Hoteldaren eskuragarritasunaren arabera.

BENETAKO 20 Mb
HILEAN 33,8€
Soilik ordainduta urtebetez

eta

Eta mugikorrean edo TBan alta ematen baduzu

LINEA BARRER

OPORRAK EUSKALTELEKIN

Aurten, oporretara eramango zaitu Euskaltelek. **Gure Trio eskaintza (Mugikorrarekin edo TBekin)** kontratatuz gero, bost gaueko egonaldia**** (Cabo de Gatan edo Peñiscolan) oparitutako dizugu. Bizkor ibili, lehenbiziko 250entzat bakarrik baita opari hau.

logika line
Agustindarren plaza, 6



Banatzaille ofiziala